

BEDITA LARRAKOETXEA AGIRREZABALA

(1894-1990)

Donostian, 1990-VII-27

Karmengo Ama Birjinaren egunean, 1990.eko uztailaren 16an, hil zen Oñatin Bedita Larrakoetxea euskaltzain ohorezkoa. Bederatzi hilabete lehenago, 1989.eko urriaren 7an, Aginteekin Hitzarmena sinatu zen egunean, bisita bat egitera hurbildu zitzaion Euskaltzaindiaren Zuzendaritza eta nabaritzen zen azkenetan zegoela 95 urtedun fraidea. Galdera bati erantzun zidan orduan: “Bizi, ta bera be ozta-ozta”. Azkenean joan zaigu. Hiletak uztailaren 18an ospatu genituen laterandarren komentuan, euskarazko meza ederrari gregorianozko kantu batzu txertatuz, hala nola, *Qui Lazarum resucitasti, Ego sum resurrectio et vita, In paradisum* eta *Augustin Donearen ereserkia*. Goian bego.

Benito Juan Larrakoetxea Agirrezabala Gallaga Etxezarraga Zeanurin jaio zen, Undurragoiko Altxagutxi baserrian, 1894.eko ekainaren 23an. Bera baino bi urte zaharragoa zen Alejandro anaia, gero Karmeldarren ordenan sartutakoa Hipolito izenarekin eta *Legoaldi* ezizena erabili zuena euskarazko lanetan, hala nola *Grimm anaien ipuñak* 1929an argitaratu zituenean. Gure Bedita Jon-ek beste ordena batera jo zuen, hots, Altsasun ikastetxea zeukaten laterandarrengana, 1907an bertan ikasketak hasi zituelarik. 1909an Oñatin daukagu 1917.eko abenduaren 21ean Gasteizen apaiztu arte. Oñatiko ikastetxean irakasle zelarik hasi zen 1925 inguruan euskaraz idazten *Euskal esnalea* eta *Jaungoiko zale* aldizkarietan, eta *Euzkadi* egunkarian, non 1928an argitaratu zuen *Gorbeiako gaztagintza* lan etnografikoa. *Ergiama*, *Iñaki Larrakoetxea* eta *Urubieta* ezizenak erabili zituen orduan, eta Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographian* agertzen den Iñaki Larrakoetxea ez da beste idazle bat gure Bedita baizik. Gero, beste aldizkari batzuetan ere idatzi zuen, hots, *Euzko gogoa*, *Karmel*, *Egan* eta abarretan.

Prentsan argitaratzen zituen lanengatik “Kirikiño saria” irabazi zuen Bedita Larrakoetxeak 1934an. Eusko Jaurlaritzak argitaratu zion 1936an euskarazko irakasle esperientziarekin prestatu zuen *Alkarregazko Yardukera*. Itzulpen lanetan ere ari zen orduan, Garcia Peña-ren *Patologia vegetal* euskaratu zuelarik, zoritxarrez gerra denboran galdua. Beste euskaltzale asko bezala ihes egin beharrean aurkitu zen 1937an, haur talde batekin Ingalaterrako Wight irlan Weston Manor kolonia sortuz, nondik gero Southampton hirira joan zen. Bi urte luzeetan ingelesa meneratzeko aukera izan zuen, gero ikusiko dugun itzulpen lana burutzeko bestekoa.



Oñatin, 1989-X-7

Ekzerretatik eskumatara eta zutik: J. Haritschelhar euskaltzainburua, L. Villasante Iker sailburua, J. A. Martija diruzaina, J. M. Satrustegi idazkaria eta J. M. Lekuona euskaltzainburuordea.

Eserita: Bedita Larrakoetxea Agirrezabala euskaltzain ohorezkoa.

Uruguay-ko Melo hirira joan zen 1939.eko irailean eta hamazortzi hilabete bertan eman ondoren Argentinako Salta hirira pasatu zen, bertako Colegio Belgranon irakasle izan zelarik. 1954an lehendabiziko itzuli bat egin zuen Euskal Herrira. Ordurako William Shakespeare-ren antzerkiak itzultzen hasia zen eta *Binxako saleroslea* lanarekin Parisen sari bat irabazi zuen Larrakoetxeak. Jokin Zaitegik argitaratu zizkion gero hiru Shakespeareren antzerkiak *Euzko gogoan*, baina ingelesaren 37 antzerkiak pixkanaka itzultzen ari zenez, eta Zaitegiren aldizkaria jadanik desagertua, 1975ean hasita Kardaberaz taldeak argitaratu zizkion itzulpen guztiak 7, 11, 12/13, 14 eta 15 zenbakidun bildumako liburuetan. Ordurako Oñatin zegoen Argentinatik 1972an etorrita.

Euskaltzaindiak euskaltzain ohorezko izendatu zuen 1979.eko abenduaren 20an, eta hil bereko 23an eskuratu zuen Arrasaten izendapenaren agiria, nik euskaltzain urgazlearena jaso nuen une berean. Gero Oñatiko udalak eskaini zion herriaren omenaldia 1988.eko otsailaren 5ean, eta Ingalaterran egoniko haurrek

beste bat Euban 1988.eko ekainaren 12an. Beraz ohoretan joan zaigu duela hamaika egun gure euskaltzain ohorezkoa, Bedita Larrakoetxea Agirrezabala. Haren lanetan geratzen zaigu itzala.

Jose Antonio Arana Martija